

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 57/2017 Foru Dekretua, abenduaren 5koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2017ko bigarren sei hileko ordainketa zatikatua kentzea egoera meteorologiko jakinengatik kalte hartutako nekazariei

2017ko apirilean izan ziren izozte handiek garrantzizko kalteak egin zituzten Arabako Errioxako eta Aiarako eskualdeetan dauden mahastietan.

Foru dekretu honen helburua da 2017ko bigarren sei hilekoari dagokion ordainketa zatikatua ordaintzeko egin beharra kentzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboari, baldintza hauek betetzen badituzte: lehentasunezko nekazaritza ustiategi bateko kide izatea, mahastizainak izatea eta apirileko izozteen ondorioz kalteak jasan izana, ekoizpenean ehuneko 25eko edo gehiagoko galerak izanik.

Foru dekretu bidez araudia aldatzea da helburu horiek lortzeko bitartekorik egokiena.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen orokor horrekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Helburu horretarako ez da eskubideak gutxiago murrizten dituen edo hartzaileari bete behar gutxiago jartzen dizkion neurririk.

Ekimen horrek bermatu egiten du segurtasun juridikoaren printzipioa eta koherentea da ordenamendu juridikoarekin, Estatukoarekin zein Europar Batasunekoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 129. artikuluan arautzen baitu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Aplikazio eremua

Foru dekretu honen 2. artikuluan ezarritako neurria honako zergadun hauei aplikatuko zaie: abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 106. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran zehazten dituenak, baldin eta Arabako Errioxako eta Aiarako eskualdeetan duten mahasgintzako nekazaritza ekoizpenean kalteak jasan badituzte joan den apirileko izozteen ondorioz, ekoizpenaren ehuneko 30eko edo gehiagoko galerak izanik, eta foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. artikulua. 2017ko bigarren sei hilekoari dagokion ordainketa zatikatua kentzea

Foru dekretu honen 1. eta 3. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten zergadunak salbuetsita egongo dira 2017ko bigarren sei hilekoari dagokion ordainketa zatikatua kentzearen sarrera egiteko bete beharretik.

3. artikulua. Prozedura

1. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak ofizioz Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari bidaliko dio errenten egozketaren araubidean dauden eta foru dekretu honen 1. artikuluan adierazitako aplikazio eremuaren barruan sartzen diren pertsona fisiko eta erakunde guztien zerrenda.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egiaztatuko du aurreko paragrafoan adierazitako zergadun zerrendako zeintzuk betetzen dituzten abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 106. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran ezarritako baldintzak, aurreko artikuluan kendu den ordainketaren ezeztatzea aplikatzeko helburuaz.

3. Ordainketa zatikatuaren likidazioa ofizioz egitekoa bada, Arabako Foru Aldundiak balio-gabetuko du ofizioz.

4. Jarduera ekonomikoari hasiera eman izanagatik zergadunak ordainketa zatikatuen autolikidazioa egin behar badu, salbuetsita egongo da abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 106. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako eginbeharretik. Horren ondorioz, kendu egiten da 2017ko bigarren seihi-lekoari dagokion zenbatekoa ordaintzeko eginbeharra.

4. artikulua. Ofizioz egindako likidazioaren aurkako erreklamazioa

Arabako Foru Aldunditik 2017ko bigarren seihi-lekoko ordainketa zatikatuari dagokion ofiziozko likidazioa jasotzen duen zergadunak uste badu foru dekretu honen aplikazio eremuaren barruan dagoela, hura berraztertze eska dezake, betiere abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 106. artikuluko 5. idatz zatian, ezarritako prozeduraren arabera.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ